



FERNANDO PRADO AYUSO, CMF

DONOSTIAKO GOTZAINA
OBISPO DE SAN SEBASTIÁN

GURE APAIZGAIAK

Gipuzkoan erromes den Elizari Gotzain idazkia

Anaia eta arreba maiteok:

Elizbarrutira iritsi nintzenetik, duela ia hiru urte, egun askotan sartzen naiz arratsaldean Katedralera eta Artzain Onaren irudi ederraren aurrean otoitz egiten dut. Bere aurrean, otoitz itxurako ideia bat etortzen da nire ezpainera eta nire bihotzera. Beste hitz batzuekin agian, baina horrelako zerbait izan ohi da: «Jauna, Zuk zeure eskuaz laztantzen duzun ardi hori bezala zaintzen gaituzu. Begiratu maitasunez Gipuzkoan erromes den zure Elizari eta, Zuk hala nahi baduzu, gure itxaronaldia oparo egin. Zure bihotzean daude dagoeneko gure biharko apaizgai eta apaizak: zaindu, indartu, prestatu bere baietza».

Harrigarria dirudi gure apaizgaiei buruzko gutun bat idaztea, gaur egun gure elizbarrutiko apaizgaitegian apaiz-ministeriorako prestatzen ari den gazterik ez dagoenean. Zein erori bururatzen zaion ez dituen apaizgaiei buruz idaztea! Baten batek pentsatuko du gotzaina nahastuta dabilela. Bada, ez. Sinesten ez badute ere, apaizgairik ez dugula pentsatzen dutenak oso oker daude. Jaunak isiltasunean egiten du lan, ezkutuan, maitasunaren erritmo egonarriz.

Horregatik, «gure apaizgaiak» aipatzen ditudanean, dagoeneko aurpegi zehatzekin badirelako ziurtasunarekin egiten dut. Jainkoaren bihotzean daude. Oraindik ez ditugu ezagutzen, baina Jainkoak bai. Berak ezagutzen ditu, oraindik ez ditugu ikusten, baina Berak samurtasunez begiratzen die eta jadanik beren izenez deitzen ditu. Hori dela eta, nik ere bihotzean ditut, eta pazientziaz eta konfiantza hautsezinez itxaroten ditut.

Bokazio bakoitza maitasun historia bat da, Jainkoaren nahiaren eta gizakiaren askatasunaren artean ehundua. Apaiz-ministeriorako deia ez da sortzen behar hutsetik, maitasunetik baizik; ez dio estrategia bati erantzuten, misterio bati baizik. «Zatoz eta jarraitu niri» (Mt 9, 9) indarrez esaten jarraitzen duen Jainkoaren ekimena da.

Frantzisko aita santu zenak zioen bokazioak «erakartzen duen, sua pizten duen, kutsatzen duen maitasunaren indarra» duela. Zinez, Jainkoak, beti leiala denak, jarraitzen du bihotzetan suak pizten, baita Gipuzkoan ere. Horregatik gutun hau ez da erokeria. Fede

eta itxaropenezko aitormena da, gure elizbarrutiko beste anai-arreba askok ere partekatzen dutena, itxaropen gartsuz, konfiantzaz otoitz egiten dutelarik.

Gutun honek, Abendualdiaren erdian, Jainkoak, bere Elizaz inoiz ahazten ez denak, bere garaian artzainak emango dizkigun konfiantzarako gonbitea izan nahi du. Jainkoak bere bihotzean ditu apaizgai gazte hauek. Nik ere bai. Zuk oraindik ez badituzu, haientzat leku bat gordetzera gonbidatzen zaitut, zeurearen barren-barrenean, eta Aitari fidatuz otoitz egiten diogunekin bat egitera. Pazientziaz, harriduraz eta alaitasun izugarritz, haren indarrari begira jarriko gara, haren maitasun-keinuei begira, «bai» hori era misteriosuan prestatzen ari den gazte batzuegan nola pizten duen begira.

Jainkoak guri buruz duen ametsa

Liburu Santuak erakusten digunez, gu izan aurretik ere ba ginen «lehenesten» gaituen eta aurretik doakigun Jainko honek pentsatuak eta maitatuak,. Gogora ditzagun Jaunak Jeremias esandako hitzak: «Zure amaren sabelean trebatu baino lehen, nik ezagutzen zintudan» (Jr 1, 5). Hitz horrek balio du egunen batean gure apaizgai eta apaiz izango direnentzat ere. Balio du, halaber, egunen batean gure arreba sagaratuak izango direnentzat eta familia-guraso, munduko alor guztietako langile eta Elizaren zerbitzura hainbat ministeriotan beren dohainak eta karismak eskainiko dituzten laikoentzat ere. Izan ere, Jainkoarentzat inor ez da axolagabea. Denontzat du amets bat eta bizi-proiektu bat, bokazio bat eta misio bat. «Ni misio bat naiz lur honetan eta horretarako nago mundu honetan», zioen Frantzisko aita santuak (EG 273).

Gure apaizgaiak Jaungoikoak betidanik amestu ditu. Agian gaur egun unibertsitatean daude edo katekesian dabilzan haurrak dira; behar bada, lanean ari dira enpresa batean, gazte kristau talde batean, beren lagun taldean, kirol eta zaletasunen erdian. Beren ilusio eta zalantzekin bizi dute bizitza, beren amodiozko amets eta korapiloekin agian; behar bada, Jainkoak gogoz begiratzen diela eta betidanik, Unibertsoaren hasieratik, maite izan dituela jakitearen kontzientziarik gabe. Beraien historia ezkutuan dago oraindik, baina Jainkoaren begiradak promes gisa ikusten du.

Haien alde otoitz egiten dudanean, gazte normal horiek irudikatzen ditut —zein garrantzitsua den normala izatea!— beren barnean beren izenez deitzen dituen ahots bat bezala entzuten, eta ahots horri, dardarka, erantzungo diote: “Hemen naiz, Jauna”. Dei hori otoitz une batetik sor daiteke, agian zentzuz bizitako Eukaristia batetik, maitasun keinu batetik, gertuko apaiz edo erlijioso baten testigantzatik, edo Jainkoari atsegin eman nahian bizi diren guraso batzuegandik. Agian barkamen esperientzia gogor batetik sortuko da, edo jendea behatzea eta beren buruari galdetzean zertarako bizi diren, goizero zertarako jaikitzen diren edo gauetan zer itxaropenekin lo egiten duten; agian su hori itzaltzen ez den ereindako galdera batetik sortuko da. Batek daki! Bokazio oro ustekabe bat da beti, Jainkoaren graziaren agerpen bat.

Jainkoak prestatzen duena fedez itxarotea

Jaunak baditu bere denborak, eta gutxien espero denean, dena pizten duen txinparta ateratzen da; deitutakoengan bere bizitza osoa ematea piztuko duen eta anai-arrebei argia eta beroa emanaraztea eragingo dien txinparta.

Jainkoari ez dio ezerk ihes egiten. Jainkoak ez du inprobisatzen. Berak lurra prestatzen du poliki. Horregatik, nahiz eta une honetan gazte bat bera ere ez izan seminarioko prestakuntza aldian, Jaunak lorik ez duela egiten ziur nago. Bera, bere uztarako langileak aurkitzeko interes handiena duena, lanean ari da dagoeneko. Beti egin du eta egiten jarraituko du, «Bera berbera baita da atzo, gaur eta beti» (*Heb* 13, 8). Nire artzain-bihotzean ziurtasun hori piztu da, eta ziur nago bizi dugun unea ernaldi berri batez mintzo zaigula.

Badakigu kristau-esperantza ez dela jasankorra ez inozoa; itxarote aktiboa da, etxea Jainkoak bidaliko duena hartzeko prestatzen duena. Jaunak isilik lan egiten duen bitartean, guri ere elkarlanean aritzea dagokigu, haren deia entzun ahal izateko baldintzak sortuz. Jaunak gure bihotzak espero duena emango digun itxaropenari eutsi diezaiogun. Eska dezagun atsekabetu gabe itxaroten jakiteko grazia, eta Jauna gure kalkulu eta aurreikuspenetatik haratago doan zerbait prestatzen ari delako uste osoa bizirik mantentzeko grazia. Itxaronaldia, fedez bizitakoa, etorriko den bedeinkazioaren hasiera da.

Zein garrantzitsua den bihotza zabalik eta konfiantzaz mantentzea! Mariaren bihotza bezalakoa: zain dagoen, itxaro duen eta konfiantza duen bihotza. Izan gaitezen erabat fededunak. Jainkoaren bihotz fidelean promesa taupadaka ari da. Eta promesa horrek badu izena: Gipuzkoako gure elizbarrutiko apaiz izango direnak.

Etorkizuneko apaizak

Amestu ditzagun etorkizuneko gure apaizak. Apaizgaitegiak zain ditu. Han hasiko dute ametsa, eta Gipuzkoan gure artzain izateko trebatuko dira. Baina bere heziketa ez da izango titulu bat izateko prestatzeko denbora hutsa, Jesus artzain horrekin itxuratzeko barne-bidea baizik, haren antza izan nahi baitute. Bizitza osoan iraungo duen bidea.

Izan ere, apaizgoa ongi ulertua ez da behin betirako izaten den titulua, baizik eta beti eraikitzen ari den lana. Horregatik, apaizgai baten helburuak ez du izan behar soilik «ordenazioaren egunera iristea», baizik eta «benetan apaiz» izatera iristea (ik. Leon XIV).

Jainkoaren herriak —fedetik sortzen den jakinduria xume horrekin eta daukan usaimen espiritual horrekin— gure apaizgaiek, beste ezer baino lehen, Jainkoaren gizon izaten ikastea nahi du. Artzain bihotzez amesten dituzte: pazientziaz entzun, samurtasunez lagundu eta denen esperantzari eusteko gai direnak, bereziki zauri, zalantza edo nekeekin ibiltzen direnena. Giza hauskortasunaz eskandalizatu beharrean, errukiz hartuko duten gizonak.

Apaiztegian intelektualki prestatzeko aukera izango dute, Eskritura Santuak, dogma, liturgia eta zuzenbidea ezagutzeko aukera, baita Elizaren tradizioan sakontzeko aukera ere. Ikasiko duten teologiak beren fedea hobeto ulertzeko balioko die, horrela hobeto bizi ahal izateko. Ikasten dutena bizitzatik eta otoitzetik pasatzen lagunduko die, eta ikasten dutena otoitzetik eta bizitzatik aberasten. Horregatik nahi du Elizak apaizgaiek ikasketak serio hartzea, jakinik formazioa ez dela seminarioan bukatzen, bizitza osoan lagun izango duten zeregina dela. Apaiz ondo prestatuak, eguneratuak eta bere giza hazkundeari, intelektualari eta espiritualari adi dagoenak argitu ahal izango ditu gaur egungo gizon-emakumeen bilaketa konplexuak. Ekintza pastoralak, gogoeta sendoan eta bereizmen egiten duen otoitzean oinarritzen ez denean,itsu bihurtzeko eta pobretzeko arriskua du.

Eta teologia, nahiz eta oso altua izan, bizitza erreala ukitzen ez badu eta zapaltzen duen lurra kontuan hartzen ez badu, grina antzuan gera daiteke.

Gure herriak espero du biharko apaizak Hitzaren eta Jainkoaren samurtasunaren zerbitzari eskuzabalak izatea, ez gauza sakratuen administratzaile edo funtzionario soilak. Lekuko apalak ikusi nahi dituzte haiengan, bidelagunak, ez urrutiko buruzagiak. Bizitza komunitarioa artatu, elikatu eta animatzeko gai diren gizonak; bataiatu bakoitzaren dohainak aurkitu eta lorarazteko gai direnak, eta elkarreko karismak eta ministerioak harmonizatzeko gai direnak. Besteekin batera lan egiteko gai diren gizonak, Eliza misiolari hau guztion artean eraikitzen dugula sinetsita, sinodo-erako erantzukidetasunean eta komunioan, azkenaldian Pedroren Ondorengoak, gure aita santu Leon XIV.ak, eskatu digun bezala.

Jainkoaren herriak espero du, noski, gure apaizgaiek eraikitzaile eta komunioaren lekuko izaten ikastea: guztiengandik hurbil, bere presbiterioarekin, bere gotzainarekin eta Aita Santuarekin bat eginik. Bizi dezatela fedea sakonki eta misioa alaitasunez; maita dezatela egunen batean beren bihotzean eta beren garaian behartsuenentzako lekua gordez emango zaien elkarrekin. Azken finean, gure Gipuzkoako Elizan haiengandik espero duguna sinplea eta sakona da aldi berean: Jainkoaren gizonak izan daitezela, gizatasunean aberatsak.

Apaizgaitegia «iturburu den tokia»

Seminarioa «tailer» baten antzekoa da, bidea egin ahala ikasiz joaten da. Era berean, «iturburu den tokia» da, non bereizmenak erdigunea hartzen duen, eta non Jaunarekiko harreman bizian sakontzen den, dohain guztien iturburu lehena eta dei ororen jatorria baita Bera. Horregatik da funtsezkoa Berarekin tratu pertsonala eta sarria izatea. Harreman horretan eratzen da benetan erabakigarria dena. Otoitz eginez, Jaunaren ahotsa ezagutzen eta Jainkoak gugandik zer nahi duen bereizten ikasten dugu. Otoitzean berari entzuten ikasten dugu, bere sentimendu berberak izaten. Harreman horretan gure nahiak behar bezala araztu eta kokatzen dira, ebanjelikoago bihurtzen dira. Bere hitzak dena argitzen du eta gero eta gehiago konfiguratu gara Berarekin. Otoitzean, Jauna gure bizitzako harremanik sakonena eta preziatuena bilakatzen doa. Zein hunkigarriak Benedikto XVI.a aita santuak bere heriotza orduan esandako azken hitzak! Lekukoek esan zuten, hitz argigarri hauek izan ziren haren ahotik entzun ahal izan zuten azken gauza: «Jesus, maite zaitut». Amaiera arte Berarekin errotik lotutako bizitza. Egia esan, bere Hitzaren entzuteko, Berarekin egoteko eta harremana izateko denbora, apaizgai batentzat eta apaiz batentzat bizitzan ondoen erabilitako denbora da.

Apaizgaitegia benetako bizi-eskola ere izango da; gizatasuna eta fedea lantzen diren etxea, Ebanjelioaren erritmoan entzuten, zerbitzatzen eta ibiltzen ikasteko lekua. Han, anaitasuna ez da ideal bat bakarrik, eguneroko zeregin bat ere bada: elkarrekin bizitzea, elkarrekin otoitz egitea, Eukaristia elkarrekin ospatzea, norberaren egiarekin aurrez aurre jartzea besteekin kontrastean eta elkarriketan, «anaia zaharrenekiko» otzantasunean, hezitzaileei eta irakasleei, beraientzat «amatasun» edo «aitatasun» espiritual moduko bat gauzatzen duten gizon eta emakumei ere. Horrela, anaitasun- eta komunio-«tailer» horretan, apaizgaien bihotzean «Jainkoak deituak direla jakitearen poza, nahiz eta hauskortasun eta zalantzen erdian egon» berresten da (Leon XIV). Apaizgaitegian Kristok beraientzat pentsatuta daukan bizi-proiektua doitzen eta mamitzen joango dira eta euren asmoak eta bokazioa garbituko dituzte. Han jakingo dute gure apaizgaiek apaizaren handitasuna ez dela zer egiten duen, baizik eta nola maite duen.

Seminario serio eta alai batekin egiten dut amets, senitartekoa, sakonki ebanjelikoa, non gazte bakoitza bere egian lagundua izango den. Burbuila babesgarria izango ez den apaizgaitegia; gizartearekin eta kristau elkarteekin harremanetan egongo den gune irekia, non apaizgaiek —ikasketen eta otoitzaren artean— jendearen bizitza erreala bertatik bertara ezagutu eta harekin era sanoan erlazionatu ahal izango duten.

Bereizmena egiten ari zaren horri

Bokaziozko bereizmen horretan dagoen gaztea bazara, eta zurea apaiz-ministerioan emandako bizitza zelib ea eta entregatua izan daitekeela susmatzen baduzu, gauza bat bakarrik esango dizut. Elizak ez zaitu perfektu nahi, eta are gutxiago zu besteak baino perfektuagoa zarela uste izatea. «Normala» izan zaitez nahi du. Zure adinerako behar duzun heldutasuna izan behar duzu. Ez gehiago, ez gutxiago. Hori bai: Jesu Kristoz eta bere Elizaz guztiz maiteminduta nahi zaitu. Baina benetan maiteminduta. Beraz, ez duzu nahikoa apaizgaitegira suharki etortzea, besterik gabe. Baldin bazatoz, etor zaitez egiten duzunaz seguru, hau zure bidea delako intuizio sakonarekin eta irauteko gogo irmoarekin. Ez etorri etxea desordenatuta duzula, edo gauza serioetatik ihesi, izan afektiboak, familiarrak edo sozialak, konpondu gabe izan ditzakezunak. Apaizgaitegia eta ondorengo apaiz-bizitza ez dira inoiz zure arazoei babeseta eta konponbidea aurkitzeko babesleku.

Bistan denez, Elizak ez du zugandik espero orain dena erabat argi izatea. Zugandik espero duena bokazio zintzoa da, bihotz-garbitasuna duena, Jesusi jarraitzeko, Bera bezala izateko eta bizitzeko grina argia duena. Zure entrega librea izango da, ez da interesei edo beldurrei lotuta egongo. Apaizgaitegiak lagunduko dizu pixkanaka erabaki hau zure baitan gero eta gehiago heltzen joan dadin; zure bokazioa doitzen, lantzen eta sendotzen lagunduko dizu. Azken finean, lagun izango duzu, apalki, zure baitan Jesus artzainaren irudia irudikatu ahal izan dezazun —betiere modu mugatu eta inperfektuan— eta fideltasunaren eta maitasunaren benetako testigantza izan ahal izan dezazun.

Bidea ez da erraza izango, ohartarazten dizut. Zailtasunak ez zaizkizu faltako. Gaur egun, «betiko» diren bizi-aukerek kontrastea egiten dute giroarekin. Apaizen eta Elizaren irudi publikoak ere ez du askorik laguntzen, askotan desitxuratua eta, zalantzarik gabe, gaur egun garai batean baino gutxiago baloratua. Apaiz izatea, gainera, senide eta gertuko pertsona askorentzat, fededunak izan arren, ez da euren zerumugan begiesten duten zerbait. Beste bide batzuek agian zoriontsuago egingo zaituztela pentsatzen dute.

Zilegi bekit gazteei puntu honi buruz esandako zerbait gogoraraztea, Jubileua hastean egin nuen gutun pastoralean idatzitakoa: «Ausarta bezain fidakorra izatera gonbidatzen zaitut. Deitzen dizunak zure zoriona besterik ez du nahi zuretzat (...) Jaunak, aukeratzen duenak, emango dizu erantzuteko behar duzun argitasuna, gaitasuna eta indarra. Jainkoak ez ditu gai direnak deitzen, aukeratuak gai egiten baizik. Eta bidean zoazen bitartean, jarraitu zeure burua prestatzen, zure fedea ospatzen, beste gazte batzuekin partekatzen; jarraitu etengabe otoitz egiten, gehien behar dutenei zerbitzatzea ahaztu gabe».

Eremua prestatu

Bokazioaz hitz egitea topaketa bati buruz hitz egitea da. Bokazio oro —batez ere apaiz bokazioa— Kristorekin izandako topaketa bizi batetik sortzen da. Ez dago deirik maitasunik gabe, ezta jarraipenik ere pasiorik gabe. Apaizgai eta apaiz izango dena Kristok liluratzen utzitako norbait da, Jeremias profetaren antzera: «Liluratu egin nauzu,

Jauna, eta ni zure lilurapean erori» (*Jr* 20, 7). Liluratze hori ez da zirrara iragankor bat, harreman egonkor eta hazkor misteriotsu bat baizik, beti Jainkoaren herriaren erdian elikatua.

Bokazioa ez da inoiz modu isolatuan sortzen. Familia- eta elkarte-ingurune egoki bat aurkitzen duenean loratzen da, eta ingurune horrek eusten, bultzatzen eta ahalbidetzen du. Benetako «bokazio-kultura» batek elkarte biziak eskatzen ditu, sinestunak, Kristori jarraitzeak merezi duela ekintzekin erakusteko gai direnak. Bokazioak fedea bizi den eta alaitasunez ospatzen den lekuan sortzen dira; apaltasunez zerbitzatzen den lekuan eta bizitza partekatua itxaropenaren seinale den tokian. Hala esaten nizuen nire aurreko gutun pastoral batean, *Gure Apaizak* izenekoan: «Bizitasun ebanjelikoa dagoenean, Espirituak bizia ernaltzen du eta erantzun eskuzabalak sorrarazten ditu». Zain ditzagun, bada, gure elkarteak. Elkarte zaintzea bokazioak zaintzea da. Bokazioak zaintzea elkarte zaintzea da.

Egiaz, eremua prestatu behar dugu, eta gure elizbarrutian «bokazio-kultura» bat sustatu behar dugu; bokazioa denontzako dei gisa uler dadin «norentzat naiz ni?» hori deskubritzeko giro egokia sortu eta elikatzea besterik ez da. Giro horretan, bakoitzak bere lekua eta ardura aurkituko du elkartearen. Gure apaiz eta pertsona sagaratuengan ditugun zerbitzu-bokazio espezifikoek zer esan nahi duten maitasun bereziz baloratzen dugun giroa. Hori haurtzarotik sustatu behar da, kontzientzia handiz, familietan, parroketan, eskola katolikoan eta kristau elkarte orotan.

Gazteei apaiz-bokazioa planteatzea ez da «errekrutatzea», baizik eta Jainkoaren nahia piztea eta galderak eragitea: «Jauna, zer nahi duzu nire bizitzarekin egitea?» «Zergatik erreparatu duzu nigan?» Bokazioa ez da sortuko estrategietatik, kanpainetatik edo kontsignetatik, baizik eta, batez ere, fedea, alaitasuna eta senidetasuna arnasten duten elkarte guztietan apaizen, pertsona sagaratuaren eta leialen testigantza kutsakorretik. Eliza alai, zerbitzari eta konprometituak bokazioak sortzen ditu modu naturalean. Agian tantaka, baina bokazioak sortu egiten dira. Horrela, Jauna bere lana egiten ari den bitartean, guk, aurkitzen ditugun zailtasun objektiboen artean ere, geure aldetik jartzen eta dagokiguna egiten jarraitu behar dugu.

Apaiz-bokazioak urri direnean, egin dezakegun gauzarik onena da Jaunari aurkeztea auzia, eta Hari galdetzea, bera baita mahastiaren jabea. Bokazioak dohaina dira, espero den oparia, ez gure antsietatetik jaiotako eskakizuna. Oso akats larria izango litzateke bokazio pastoral larritasunetik edo antsietatetik planteatzea, egonezina eta benetako prestasuna baino ez lukeelako sortuko. Gauzak horrela planteatzen direnean, funtsean, agian bada ministerio ordenatuaren kontzepzio desitxuratu bat, funtzionala agian, gure premia edo epe laburrerako urgentzia hutsera bideratua. Ez dugu bokazio larri eta antsiatzurik nahi. Kezkatu bai, baina gain-kezkatu ez! Izan gaitezen fededunak. Jainkoak daki. Bera da interesatuena. Berak emango digu bere garaian behar duguna.

Denon artean eutsitako bokazio pastoralta

Guk, bitartean, ez dezagun gure konpromisoa murriztu. «Jainkoari erreguz, beharrari mailuz»: horrek izan behar du gure jarrera. Dударik gabe, garrantzitsua da gure elkarteei zintzotasunez begiratzea eta bihotz-berritze bide batetik eramaten uztea, ebanjelikoagoak, irekiagoak eta bokazioak pizteko kapazagoak izan gaitezen. Baina aktibatu egin behar dugu. Lehenetasuna duena lehenetsiz. Dena otoitzetik hasten da: gure familietan mahaia

bedeinkatzean, parrokiako edo beste edozein motatako talde topaketa eta bileretan, ospakizun bakoitzean, gazteengan beharrezko konfiantza eta ausardia sor ditzala Jainko probidenteari eskatuz, Berak deitzen badie eskuzabal erantzuteko. Lagun diezaiogun erregu horri bokazio gisa, Jainkoaren borondatea betetzeko irrikaz, bizitako bizitzaren testigantza pertsonalarekin. Bokazioak serio hartzeak, norbere bokazioa serio hartzea eskatzen du.

Elizbarrutira heldu nintzenetik, ahalegin hau pastoral urte bakoitzaren azpimarra garrantzitsua izatea nahi izan dut. Elizbarrutiko Gazte eta Bokazio Pastoraltzaren ordezkari-tza sortzea urrats garrantzitsua izan da aldi honetan: ilusioz eta ondo ari da lanean, gazte kezkatuei bereizmen programa serioak eta laguntasun berariazkoagoa eskainiz.

Baina ordezkari-tza bat izateak ez gaitu salbuesten, ez banaka, ez gure elkarteak, bokazioak sustatzeko arduratik. Denok gara erantzukide: familiak, presbiteroak, pertsona sagaratuak eta sekularrak... ni neu, gotzain gisa. Bakoitza, bizi den eta zerbitzatzen duen tokian, bokaziozko iragarpena da dagoeneko: gure hurbiltasunak, gure bizimodu ebanjelikoak, gure alaitasunak eta prestutasunak mila hitzek baino indar handiagoz hitz egiten dute. «Egon» hutsak ere egiten du: lagundu, entzun, nerabe eta gazteei denbora eskaini, zerbitzatzen, otoitz egiten, Jainkoari entzuten irakatsi.

Uzta-jabeari eskatuz

Jaunak lehentasuntzat proposatu zigun. «Uzta ugaria da... Erregutu, bada, uzta-jabeari, bidal ditzala langileak bere uztara» (*Lk* 10, 2). Bokazioen alde otoitz egitea lan erraza da, eta guztiok egin dezakegu pribatuan, baina baita elkarteetan ere. Ez gara gu bokazioak ematen ditugunak. Jainkoak ematen dizkigu. Horregatik, konfiantza osoz eskatu behar dizkiogu. Bera zailtasun guztiak baino askoz boteretsuagoa da. Ziur nago Donostiako gure elizbarrutian, etxe eta familia guztietan, gure lurraldeko parrokia eta txoko guztietan, guztiok eta, batez ere, gazteak inplikatu dituen bokazioengatik otoitz mugimendu serio eta etengabea sustatzeko unea dela. Jaunak ez du erantzunik gabe utziko gure ahalegina.

Jar gaitezen martxan. Parrokia bakoitzean, boluntarioak eta behar horretaz konbentzituta daudenak talde bat osatzeko eskaintzera gonbidatzen ditut, talde txikia izan arren, bokazioengatik otoitz egiteko, bereziki zerbitzu bereziko bokazioengatik —ministerio ordenatuagatik, bizitza sagaratuagatik—, gutxienez hilean behin modu sistematikoan. Parrokoek beren burua eskaintzen duten boluntarioak hartu eta bokazioen aldeko otoitz-talde horiek osatzen lagundu ahal izango lukete, horretarako leku egokia emanaz. Bokazioen aldeko otoitz-talde hauek, komenigarriago ikusiko balitz, bailara-mailan edo pastoral barruti mailan antolatu daitezke. Argi berri bat iragartzen duten eta gure elkarteetan erdian su hau piztuta mantentzeaz arduratzen diren «goizeko begirari» bezalakoak izango dira. Konpromisoa hartu nahi duten pertsona talde horiek urtariletik aurrera has daitezke antolatzen eta elkartzen, erabakitzen duten maiztasunarekin. Ez ditzatela utzi topaketa hauetara gonbidatu gabe beren apaizak, biziera sagaratuko kideak eta elkarte osoa. Halaber, urtariletik aurrera, nik neuk dei berezia egingo diet bat egin dezaketen eta egin nahi duten elizbarrutiko apaizei, baita gazteei eta elizbarrutiko elkarte osoari ere, nirekin batera otoitz egitera, bi hilean behin Katedralean. Eguna eta ordua garaiz iragarriko dira. Urtean behin, «goizeko begirari» guztiak otoitz eta jai topaketa batera deituko ditugu.

Artzain Ona gure Katedralean, argi-suzi iraunkor bat piztuko dugu, txoko bat bokazioen alde otoitz egiteko gordez.

Horrela lurra presta dezakegu. Horrela, sua bizirik manten dezakegu eta «bokazio-kultura» hori sustatu: ez ahalegin isolatutik, baizik eta Jainkoak egiten duena hartzen, entzuten, laguntzen, otoitz egiten eta ospatzen duen elkartearen bizitzatik. Elkarre batek bokazioengatik otoitz egiten duen lekuan, hantxe dago apaizgaitegia. Gazte batek alaitasunez zerbitzatzen duen lekuan, familia batek fedea bizi duen lekuan, apaiz batek bere bizitza xumetasunez eta alaitasunez ematen duen lekuan, bokazio bat sortzen ari da han. Kemenik ezak ez du inor erakartzen, baina bai altxor bat aurkitu eta maitasunez zaintzen dutenen poz bareak. Apaizgaiak heldu bitartean, eduki dezagun piztuta su hori elizbarrutiaren ariman.

Itxaroteko eta itxaropen izateko aldia

Gure elizbarrutian bizitzen ari garen denbora itxaronaldia da. Eta itxaronaldi oro da, aldi berean, ataka eta promesa. Ageriko bokazioak falta direnean, bihotza dardarka hasten da: Jainkoaren isiltasuna bezala sentitzen dugu, eskasiaren pisua, etorkizunarekiko kezka, elkarre ugariei fideltasunez eusten dieten hainbeste apaizen nekea. Baina isiltasun oro ez da hutsa.

Jainkoaren isiltasuna —Nazaretetkoa bezala— gauza handi baten atariko da askotan. Gure esperantza ez da optimismo inozoa, Jainkoaren fideltasunean konfiantza izatea baizik. Guk ez dugu itxaroten argi ikusten dugulako, inoiz huts egiten ez duenarengan konfiantza dugulako baizik. Argilunean ere, sinestea esperantza ororen kontra itxaroteta da, Abrahamek bezala (ik. *Erm* 4, 18).

Jainkoak beti entzuten du. Ziurtasun horrek salbazioaren historia osoa zeharkatzen du. Israelgo herria Egipton intzirika ari zenean, «Jaunak bere aldarria entzun zuen» (*Ir* 3, 7). Anak seme-alabarik ez izateagatik negar egiten zuenean, Jainkoak Samuel eman zion (ik. 1 *Sm* 1, 20). Elizak Pedro espetxeratuaren alde otoitz egiten zuenean, Jaunak askatu egin zuen (ik. *Eg* 12, 5).

Jaungoikoak gaur ere gure elizbarrutiaren aldarria entzuten du, artzainak eskatzen dizkiona. Ez dakigu noiz eta nola erantzungo duen. Baina badakigu erantzungo duela. Izan ere, Bera leiala da. Berak ez ditu bere herriaren malkoak ahazten, ezta bere seme-alaben otoitzak ere. Elizaren historia osoa da leialtasun horren frogak. Eska dezagun, bada, jarraikitasunez. Bihotzarekin otoitz egiten dugu, etsi gabe; jakinik, otoitz bakoitzak, eskainitako Eukaristia bakoitzak, gurtza bakoitzak, kontenplaziozko isiltasun bakoitzak, pisu infinitua duela Jainkoaren bihotzean.

Fede xume eta iraunkor horrek eusten dio Gipuzkoako gure Elizari. Igarotzen dugun bokazio-negua pastoral bihotz-berritzerako eta beste sormen-ahalegin baterako deia da. Sakonago begiratzen gonbidatzen gaitu, fedea nola bizi dugun berrikustera, gure elkarteak gazte batek Jaunaren ahotsa entzun eta abegikor sentitzeko espazioak diren galdetzerak, «bokazio-tentsioan» bizi garen, otoitz egiten dugun eta bokazioak desiratzen ditugun galdetzerak.

Ez dezagula zalantzarik izan. Jainkoak biharko bokazioak esker handiagor hartzeko prestatzen gaitu. Bizi dezagun denbora hau lasai. Hazia landatuta dago, eta Espiritu

Santuak ernaraziko du. Jainkoak ez du sekula erantzunik gabe uzten otoitz egiten duen herria. Horregatik, ez daukaguna deitoratu baino, zaindu dezagun daukaguna: fede bizia, komunioa, otoitza, itxaropena.

Salmoak dioten bezala: «Malkoz ereiten zutenek pozez biltzen dute» (*Sal* 126, 5). Iritsiko da eguna, izan ere, iristen ari da, bokazio berriak sortzen ikustearen pozak itxaronaldiak ahanzaraziko dituenekoa.

Itxaropenaren Jubileuaren eta gure Elizbarrutiaren 75. urteurrenaren amaierara hurbiltzen ari gara. Elkar argitu duten bi gertaera dira, Jainkoa beti gurekin dabilela eta Jainkoak bere herriarekin duen historia beti leialtasun historia dela, salbazio historia dela gogorarazten digutenak.

Bizi dugun ezer ez da alferrikakoa fedez bizi duenarentzat. Eskasia izan daiteke zerbait berriaren ataria. Itxaronaldia itxaropenaren hazia izan daiteke. Jarrai dezagun sinesten, itxaroten eta maitatzen.

Hurrengo apaizgaiak gure apaizgaitegiaren atea jotzen duen egunean ikusiko dugu itxaropenak ez duela hutsik egiten. Eta eskerrak emango ditugu elkarrekin, Jainkoak bere herriaren aldarria entzuna izango duelako eta konfiantza garaile atera delako beste behin ere.

Elizbarrutiko kide maiteok, gutun hau otoitz bihurtzera gonbidatzen zaituztet. Eraman ezazue bihotzera, banatu ezazue elkarteetan, erreztatu zuen parroketan. Fedea eta desira pizturik mantentzen dituen sugarra bezalakoa izan dadila. Jaunak deika jarraitzen du. Guk zain jarraitzen dugu. Eta maitasunez eta fedez bizitako itxarote hori Espirituaren emaitza da dagoeneko.

Jo dezagun Arantzazuko Amarengana eta eska diezaiogun Jaunari haren samurtasunak gazteekiko gure lana inspiratu dezala; bere pazientziak gure itxaronaldiari eutsi diezaiola; bere ama-begiradak babes eta zain ditzala Jainkoa bere bihotzaren arabera artzain izateko prestatzen ari den gazteak.

In Corde Matris.

Donostia, 2025eko abenduaren 8
Sortzez Garbiaren festaburua
Seminarioaren eguna

✠ Fernando Prado Ayuso, CMF
Donostiako Gotzaina